



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO  
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

# ANIZTASUN FUNTZIONAL FISIKOA DUTEN EMAKUMEEN AMATASUN-BIZIPENEN HURBILKETA LANA

---

GRADU AMAIERAKO LANA.  
GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA  
2013/2014

**Egilea: Andrea Arroyo Diez**

**Zuzendaria: Olga Cardeñoso Ramírez**

Leioan, 2014ko ekainaren 16an.

© 2014, Andrea Arroyo

*ZUZENDARIAREN ONIRITZIA*

*EGILEAREN ONIRITZIA*

## AURKIBIDEA

---

1. SARRERA.....	3
2. EMAKUMEA, ANIZTASUN FUNTZIONALA ETA AMATASUNA .....	3
2.1. Aniztasun funtzionala eta harremanak .....	4
2.1.1. Zailtasunak .....	5
2.2. Aniztasun funtzionala eta amatasuna .....	7
2.2.1. Legeria.....	7
2.2.2. Oztopoak .....	8
2.2.3. Amatasun identitatea .....	10
3. METODOLOGIA.....	12
4. EMAITZAK .....	14
4.1. Seme alabarik gabeko aniztasun funtzionala duten emakumeak .....	14
4.2. Ama izandako aniztasun funtzionala duen emakumea .....	19
4.3. Aniztasun funtzionala ama izan ostean .....	22
5. ONDORIOAK .....	24
6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK .....	27
ERANSKINAK .....	30
1. Eranskina. Web orrialde interesgarriak.....	30
2. Eranskina. Elkarrizketetarako galdekizunak.....	32

### TAULAK

1. Taula: Aniztasun funtzionala, adina eta sexuaren arabera. (INE, 2008, Espainia).....	4
2. Taula: Aniztasun funtzionala duten biztanleen harreman pertsonalak izateko zailtasunak, sexuaren arabera. (INE, 2008, Espainia).....	5

## ANIZTASUN FUNTZIONAL FISIKOA DUTEN EMAKUMEEN AMATASUN-BIZIPENEN HURBILKETA LANA

**Andrea Arroyo Diez**

UPV/EHU

Ama izatea emakume guztion eskubidea da, baina, aniztasun funtzionala duten emakumeen inguruan ari garenean, gaia tabu bihurtu daiteke. Ikerketa honetan, aniztasun funtzional fisikoa duten emakumeen amatasunaren gaia lantzen da. Horretarako, legedi testuak, datu estatistikoak, ikerketak erabili dira, baina batez ere protagonistei ahotsa eman nahi izan da, aniztasuna funtzional fisikoa duten emakumeak. Seme alabarik gabeko aniztasun funtzionala duten emakumeak, ama izandako aniztasun funtzionala duten emakumeak, eta ama izan ostean aniztasun funtzionala izandako emakumeak. Ateratako emaitzek, ezjakintasuna eta baldintzapen sozialek emakume hauen bizitza modelatzen dutela erakusteaz gain, emakume taldearen arabera bizitza ikuspuntu ezberdinak daudela adierazten dute.

*Generoa, emakumea, gizartea, aniztasun funtzionala, amatasuna*

Ser madre es un derecho de toda mujer, pero cuando hablamos de mujeres con diversidad funcional el tema puede llegar a ser tabú. En la presente investigación se aborda el tema de la maternidad en mujeres con diversidad funcional física. Para ello, se ha contado con textos legislativos, datos estadísticos, estudios, pero sobre todo se ha querido dar voz a las protagonistas, mujeres con diversidad funcional física. Mujeres con diversidad funcional que no son madre, otras que han sido madres y otras que después de ser madres les ha sobrevenido la diversidad funcional. Los resultados obtenidos muestran cómo el desconocimiento y los condicionantes sociales modelan la vida de estas mujeres, y cómo dependiendo del grupo de estas, existen diferentes puntos de vista acerca de la vida.

*Género, mujer, sociedad, diversidad funcional, maternidad*

Being a mother is every woman's right, but when it comes to differently-abled women the topic can become taboo. This research aims to study the maternity in physically differently-abled women. In order to achieve the aim, legislation, statistics and several studies have been used; but it has mostly wanted to give voice to the main characters, physically differently-abled women. Some have decided to exercise their right to maternity, others not, and there are some who after being mother have befallen them the differently-ability. The results show how lack of awareness and social factors shape the lives of these women, and how depending on the group of women, have different points of view.

*Gender, woman, society, differently-abled, maternity*

## 1. Sarrera

Gizartean, aldi historiko zein kulturalaren arabera, belaunaldiz belaunaldi sinesmen sistemak transmititzen dira, horien artean sexu/generoarena. Hau, eraikitako egitura soziala da, non sexuaren ezberdintasun biologikoetan oinarritutako harreman hierarkiakoak eratzen diren. Honela, gaur egun emakumea bizitza eremu ezberdinetan aritzen den arren, oraindik ere genero arteko parekidetasuna ematen ez dela onartu beharra dago, emakumearen kontrako diskriminazioa aintzat hartuz (Gómez, 2010; López, 2008). Eredu soziokultural hauekin apurtzeko lege ezberdinak ezarrita egon arren, errealitate politikoa, juridikoa, ekonomiko eta soziala aldaketa praktikoaz oso urrun geratzen da (Gracia de la Cruz eta Zarco, 2004).

Aniztasun funtzionala<sup>1</sup> duten emakumeen kasuan, generoaren eta ezberdintasun anatomikoaren bazterketa bikoitza pairatzen dute (López, 2008; Díaz Funchal, 2013; Martínez Ríos eta Leonhardt Gallego, 2009). Bazterketa horiek, harreman zuzena dute aro historiko zein gizarte ideologia eta politika menperatzaileen interpretazioarekin (López, 2008; Rodríguez-Picavea Matilla, 2010).

Gaur egun, aniztasun funtzionala eraketa sozialtzat ulertzen da, hau da, norbanakoaren gaitasun eza baino, gorputz ezberdintasun edota ezberdintasun funtzionalak interpretatzeko eraren arabera definitzen da. Horrek estereotipo eta aurreiritziak direla eta, harreman interpersoneetan zuzenki eragina izango du. Izan ere, aniztasuna kontuan hartzen ez duen merkatu-ekonomian, produktibitatean, lehiakortasunean eta estandarizazioan oinarritutako antolaketa soziala eratu da. Aniztasun funtzionala ulertzeko era berri honi, Eredu Soziala deritzo (López, 2008; Morris, 1997; Rodríguez-Picavea Matilla, 2010; Viñuela, 2009).

## 2. Emakumea, aniztasun funtzionala eta amatasuna

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME), aniztasun funtzionalak munduko populazioaren %12ari eragiten diola azaltzen du. Espainiar emakumeei buruz ari garenean, ehunekoak


---

<sup>1</sup> Kolektibo hau izendatzeko terminologiaren inguruko eztabaidak gaurkotasunean jarraitzen du. Mespretxuzko terminoekin bukatzeko, Bizitza Independenteko Foroan “Aniztasun-Funtzionala” terminoa 2005. urtean eratu zen. Lobato, M. eta Romañach, J. (2005). *Diversidad Funcional, nuevo término para la lucha por la dignidad en la diversidad del ser humano*. Foro de Vida Independiente. 2014-03-12an hartua, hemendik: [http://www.forovidaIndependiente.org/files/documentos/pdf/diversidad\\_funcional.pdf](http://www.forovidaIndependiente.org/files/documentos/pdf/diversidad_funcional.pdf)

gora egiten du. Nazio-eroldaren %51 emakumeak izan arren, ez dira XX. mendeko bukaera arte aniztasun funtzionala duten emakumeen behar zehatzak kontuan hartu. Egun, gainera, honen inguruko azterlanak oso murrizak dira (Mogollón, 2004; López, 2008; Cruz Pérez, 2004; Viñuela, 2009 ; Díaz Funchal, 2013).

Aniztasun funtzionala aztertzeko bi aldagai kontuan hartzea ezinbestekoa da: adina eta generoa. Grafikoan islaturik dagoen bezala, adina aurrera doan heinean, aniztasun funtzionalen bat izateko arriskua handiagoa da. Generoari dagokionez, 40 urtera arte, aniztasun funtzionala duten emakume eta gizonen proportzioak antzekoak dira, baina, adin horretatik aurrera, emakume kopurua nabarmen handiagoa da, %59,8 emakumezkoa delarik (Huete, 2013; López, 2008).

**Taula 1:** Aniztasun funtzionala, adina eta sexuaren arabera (INE, Espainia, 2008).




## 2.1. Aniztasun funtzionala eta harremanak

Pertsonen garapen integrala lortzeko ezinbestekoa da haurtzaro eta gaztarotik harreman interpertsonalak izatea. Era berean, laguntasun eta adiskidetasunaz gain, harreman sentimentalak ere pertsona askoren bizitzan rol garrantzitsua du (López, 2008).

Emakumeak aniztasun funtzionalaren barnean gehiengoak izanda ere, harreman interpertsonalak izateko zailtasun gehien antzematen dituztenak dira. Datuetan ikusi daitekeenez, Espainian gutxiengo batek harremanetarako diskriminazioa onartu arren, gehiengoak emakumeak dira: guztira 430.397 pertsona izanda, 237.301 emakumeak dira (Huete, 2013).

**Taula 2:** Aniztasun funtzionala duten biztanleen harreman pertsonalak izateko zailtasunak, sexuaren arabera (INE, Espainia, 2008).



Bikote harremanei dagokionez, Lopez-ek (2008) “*Mujeres con discapacidad*” liburuan adierazten duen bezala, aniztasun funtzionala duten emakumeek amodio hitzorduak ezgaitasuna duten gizonak edota gainerako emakumeek baino beranduago izaten dituzte. Gainera, bikoteak aniztasun funtzionala izatea aukera bakartzat hartzen da, bien antzeko gutxiagotasun maila dela eta.

Bikote harremanen egonkortasunari erreparatuz, aniztasun funtzionalarekin jaio ez diren pertsonen egoera berriak harreman pertsonaletan eragina duela antzematen da. Aniztasun funtzionala dutenak gizonak direnean, harremana mantentzeko joera dago; emakumeen kasuan, aldiz, ez (López, 2008).

### 2.1.1. Zailtasunak

Harreman interpertsonalak aurrera eramateko oztopoen inguruan, López (2008), Ramiro (2003) eta Viñuela-ren (2009) arabera, honako hauek dira nabarmentzen diren faktoreak: itxura fisikoa, inguru sozialera helezintasuna, inguru familiarra, eta gainerakoen ikuspegia.

#### *Itxura fisikoa*

Egun bizi garen kulturean, gorputzak, ezarritako patroizkoak eta onespina jasotzeak daukan balio handia kontuan izanda, aniztasun funtzionala duten pertsonetan, eta emakumeetan bereziki, identitatea eratzeko eta interakzio sozialak izateko eragin nabaria izan dezake. Izan ere, erakargarrtasun fisikoa eta erakargarrtasun soziala batera doazen kontzeptuak direla esan daiteke (López, 2008; Ramiro, 2003).

Itxura fisikoaren arabera, sinesmen ezberdinak eratzen dira. Aniztasun funtzionala duten emakumeen itxura “araututakoarekin” bat ez doanez, sinesmenak nabariagoak dira. Ohikoenak, asexualitatea eta infantilizazioa izaten dira, pertsona hauei adierazpen sexual edota sentipenezkoak ukatuz (Cruz Pérez, 2004). Viñuelak dioena jarraituz (2009), emakume hauei, patriarkatuaren “emakume” kategoria osatzen duten elementuak ukatu zaizkie (edertasuna, sexualitatea, amatasuna, etab.). Ikuspuntu honetatik aztertuz,

aniztasun funtzionala duten emakumeentzat positiboa izan daiteke genero femeninoko zenbait rol betetzea, urteetan zehar ukatutako emakume izateko eskubidea aldarrikatzeko. Hala ere, normalizazio desio honek, norma patriarkala onartzea bultzatzen du, era berean normatik at dagoena baztertuz. Horregatik, honen esanetan, aniztasun funtzionala duten emakumeen identitatea eratzeko garrantzitsua da ezaugarri patriarkaletara jo behar ez izatea.

### ***Inguru sozialerako helezintasuna***

Aniztasun funtzionala duten pertsonen, bizitza sozialean zein aisialdian oztopoak aurkitzen dituzte. Alde batetik, eragozpen handiak izaten dituzte pertsonen orokorrean harremanak eraikitzen dituzten guneetara heltzeko. Eta bestetik, oztopo fisikoez gain, kolektibo honetako partaideek aisiarako zenbait lekutan ere ez dira ongi etorriak. Honela, sarritan aukera alternatiboak erabiltzen dituzte harreman sozialetarako, chat edo foroak nagusiki (Cruz Pérez, 2004; López, 2008).

### ***Inguru familiarra***

Kolektibo honen harremanetan eragina duten faktoreen artean, familiaren itxaropen eta presioak bereizten dira. Emakumeen kasuan gurasoen gain-babesa nabarmentzen da, edozein arrisku posibleetatik babestuz eta hortaz, harreman sozialak zailagotuz (Díaz Funchal, 2013; López, 2008; Mogollón, 2004). Harreman sozial hauen kontrako jarrerak, aniztasun funtzionala duten emakumeak bikote sexual, ama edota bikote onak izateko ezintasun sinesmenetan oinarritzen dira (Díaz Funchal, 2013; López, 2008).

### ***Gainerakoek ikuspegia***

Pertsonen identitatearen eraketa, gizartearekiko interakzioan oinarrituta dago, gainerakoek nola ikusten gaituzten erabateko eragina du gure buruaren ezaugarrian antzemateko orduan (García de la Cruz eta Zarco, 2004). Hortaz, edozein pertsonak ezgaitasuna duten emakumeekin elkar eragitean, interakzio hori estrukturatzen duen hainbat zeinu, etiketa eta jarrera erabiltzen ditu. Dinamika hau burutzean, tipifikatuta ditugun egoera sozialak instintiboki azaleratzen ditugu, estereotipoak eta aurreiritziak sortuz. Era honetan, noizbait gizarteak gure gaitasunak dudan jartzen baditu, gure identitatea aldatu egingo da gizarteak antzemandakora egokituz, eta jarduera ezberdinak burutzeko beldurra sentituz (Cruz Pérez, 2004; García de la Cruz eta Zarco, 2004).

Beraz, emakume hauek hainbat faktoreen alderdi negatiboak jasotzen dituztela esan daiteke. Era berean, gizartearen ikuspegia emakume hauen bizitzako jarreratan islatzen da, harreman interperersonaletan edota amatasunean besteak beste (García de la Cruz eta Zarco, 2004).

## **2.2. Aniztasun funtzionala eta amatasuna**

Amatasunaren esperientzia eta honen erantzukizunak, esanahi berezia du aniztasun funtzionala duten ametan. Izan ere, emakume hauen amatasuna aitortzen duten giza eskubide<sup>2</sup> zein manifestuak<sup>3</sup> egon arren, errealitatea oso ezberdina dela onartu beharra dago. Horregatik, tresna hauek amatasunaren inguruko aldagetak aldarrikatzen dituzte (López, 2008; Martínez Ríos eta Leonhardt Gallego, 2009).

### **2.2.1. Legeria**

Ondorengo lerroetan, azkeneko urteetan gizartetik edota administrazio publikotik aniztasun funtzionala duten emakumeen amatasunaren inguruan garatutako ekimenak agertzen dira. Hauetan, gizartearen onarpena bultzatzeaz gain, ugalketa osasuna eta irisgarritasuna aldarrikatzen da. Era berean, erabakiak autonomoki hartu ahal izateko informazioa ezinbesteko tresna dela kontuan izanda, haurdunaldi, esterilizazio eta abortuaren onespren informatua sustatzen da. Halaber, langile haurdunen eta erditu berrien segurtasun eta lan osasun neurriak hobetzea adierazten da, hala nola, amatasun baimenaren luzapena edota hobari fiskalaren igoera, ezgaitasunak suposatu dezakeen egokitzeko denbora edota gastu gehigarriak direla eta (Martínez Ríos eta Leonhardt Gallego, 2009; Mogollón, 2004). Hauek dira martxan jarritako neurriak :

➤ *Legedi eta politika nazionala:*

- Aniztasun Funtzionala duten Emakumeentzako I. Ekintza Plan Integrala. 2005-2008.
- Aniztasun Funtzionala duten Emakumeentzako II. Ekintza Plan Integrala. 2013-2016.
- Gobernu Espainoleko 2007ko Aniztasun Funtzionala duten Emakumeentzako I. Ekintza Plana.

---

<sup>2</sup> Garrantzitsuenetarikoa, Aniztasun Funtzionala duten Pertsonen Giza Eskubideen inguruko ONUren Konbentzioa (2006). New York (EE.UU.). 2014-02-20an hartua, hemendik: <http://www.un.org/disabilities/documents/convention/convoptprot-s.pdf>

<sup>3</sup> Ezgaitasunaren Europako Foruko Emakumeen Manifestua (1997), besteak beste. 2014-02-20an hartua: <http://www.cermi.es/es-ES/MujeresDiscapacidad/Publicaciones/Paginas/Manifiestos.aspx?TSMEIdPub=8>



- Lege Organikoa 3/2007. Martxoak 22, Emakume eta Gizonen arteko Parekidetasun Eraginkorrerako.
- Legea 54/2007. Abenduak 28, Adopzio Internazionala.

➤ *Legedi eta politika internazionala:*

- Aniztasun Funtzionala duten Pertsonen Aukera Berdintasun neurriak, 1993.
- Aniztasun Funtzionalaren Europar Foruko Aniztasun Funtzionala duten Emakumeen Manifestua, 1997.
- Aniztasun Funtzionala duten Pertsonen Eskubide eta Parte Hartzea sustatzeko: Europar Aniztasun Funtzionala duten Pertsonen bizi kalitatea hobetzea 2006-2015. Europar Kontseilua.
- Haurdun dauden, erditu berri duten edota bulartzen dauden emakumeen segurtasunean eta osasunean hobekuntzarako neurrien ezarpena 92/85/EEC.
- Aniztasun Funtzionala duten Pertsonen Giza Eskubideen ONU Konbentzioa 2006.

Hala eta guztiz ere, oztopo sozialek eskubide honen kontra egiten jarraitzen dute, gizarteak eta botere publikoak kolektibo honen amatasun eskubideak etengabe zalantzan jartzen baitituzte (Martínez Ríos eta Leonhardt Gallego, 2009).

### 2.2.2. Oztupoak

Urteetan zehar, gizarteratze prozesuan, emakumeen eginkizun nagusia ugaltzea eta seme-alabak zaintzea izan da, munduko zenbait tokitan, sinesmen hori oraindik ere mantenduz. Baina, tradizionalki hedatutako emakumeen rol hori, ez doa bat aniztasun funtzional fisikoa duten emakumeen rolaekin<sup>4</sup> (Martínez Ríos eta Leonhardt Gallego, 2009). Izan ere, autore desberdinen ustez (Cruz Pérez, 2004; Díaz Funchal, 2013; López, 2008; Mogollón, 2004), amatasuna sinesmenetan oinarritutako hainbat justifikaziorekin debekatua izan zaie:

- Asexualitatea. Aniztasun funtzionala duen emakumeek bikote harremanak izateko ezintasuna dutela uste bada, are gutxiago seme-alabak izatekoa.
- Osasun profesionalen iritzitan, aniztasun funtzionala duten emakumeengan amatasunak arrisku larria eragin dezake.

---

<sup>4</sup> Jada 1997ko “*Ezgaitasuna duten Emakumeen Europako Manifestuan*” gizarteak rol ezberdinak ezartzen dizkiela aniztasun funtzionala duten edo ez duten emakumeei azaltzen da.

- Aniztasun funtzionala duten emakumeen usteko zaurgarritasun eta erabateko dependentzia dela eta, beste inor zaintzeko gaitasunik izateko ezintasuna.
- Aniztasun funtzionala heredatu daiteken akats bezala hartzea.
- Aniztasun funtzionala duten gurasoak izateak, seme-alabengan ondorio psikoemozional eta psikosozial kaltegarriak izango ditu.

Haien hedatuta dauden sinesmenen ondorioz, Martínez Ríos eta Leonhardt Gallego-ren esanetan (2009), zenbait arlok amatasuna ezinezkoa izatea eragiten dute.

### ***Osasun arloa***

Hainbat autorek (Ballesteros Meseguer et al. 2011; Ballesteros Meseguer eta Pina Roche, 2011; Díaz Funchal, 2013; Mogollón, 2004; Ramiro, 2003), osasun profesionalek emakume talde honen beharrei erantzuteko trebetasun falta dutela adierazten dute. Zerbitzu publikoen azpiegitura faltak, amatasuna alde batera uztea edota seme-alaben zainketa delegatzea eragiten du (Martínez Ríos eta Leonhardt Gallego, 2009).

Bestalde, emakume hauek sarritan esterilizazio, histerektomia eta abortu behartuak pairatzen dituzte. Aniztasun funtzionala duten neska eta emakumeak antzutea, egun etengabe gertatzen den pertsonaren duintasun eskubidearen urraketa da<sup>5</sup>. Hau, pertsonaren onarpenik gabe ugalketa indibidualaren gaitasunarekin bukatzea da, oinarrizko eskubideak kontuan hartu gabe: askatasuna, errespetua eta osotasun pertsonala (Cruz Pérez, 2004; Díaz Funchal, 2013; Martínez Ríos eta Leonhardt Gallego, 2009; Mogollón, 2004; Porras Navalón, 2012). Europako Buruko Osasun Elkarteak dioen moduan, borondate kontrako jarduera honen emaitza trauma emozionalak edota depresioak oso ohikoak dira (Martínez Ríos eta Leonhardt Gallego, 2009).

### ***Ekonomia***

Aniztasun Funtzionala duten Pertsonen Konbentzioak (2006), 23. Artikuluan dioen moduan, ezgaitasuna duten pertsonen familia osatzeko eta amatasunerako zein aitatasunerako eskubide osoa izanda, Estatuak beharrezkoak diren baliabideak eskaini beharko ditu hauek era egokian aurrera eraman ahal izateko.

---

<sup>5</sup> Europako herrialde ezberdinen aniztasun funtzionala duten haur eta emakumeen osasun arloaren egoerak, honako lan honetan aurkitu daiteke: *Reconociendo los derechos de las Niñas y Mujeres con Discapacidad: Un Valor Añadido para la Sociedad Futura. 2014-04-10an hartua, hemendik: <http://www.feafes.org/publicaciones/Reconociendoderechosninasmujeresdiscapacidad.pdf>*

Eskubide berdintasuna bultzatzen duen legedia egon arren, emakume hauek oraindik ere bizitzako esparru ezberdinetan desabantaila egoeran daude. Ama hauek, aniztasun funtzionalen beharrei erantzuteko aitortuta ez dauden aparteko gastu ekonomikoak dituzte, kolektibo honen bizi kalitatea murriztuz. Gastu hauek, edozein arlotako ekintzetan agertzen dira; baina, amatasunean zentratuta, gastu medikoak, zerbitzu espezializatuen erabilpena, asistentzia pertsonala, zaintzaileen laguntza, etab. nabarmentzen dira. Egoera honetan, emakume hauen kontrako diskriminazioa larriagotzen da: ezinbesteko dituzten zerbitzuak ordaintzean, gainerako arloetan murrizketa nabariak saihestezinak dira (Martínez Ríos eta Leonhardt Gallego, 2009; Ríos Martínez, 2011).

Era honetan, askorentzat, amatasuna baliabide ekonomiko faltaren ondorioz ezinezkoa egiten zaien jardura bat da. Beraz, Amartya Sen-ek *Libertad y desarrollo* (2000) liburuan dioen moduan, giza garapena, askatasun ukapena eragiten duten iturri nagusiak ezabatzea izango da, hala nola, pobrezia, nagusikeria, pribatizazio sozialak, zerbitzu publikoen arduragabe egoera, etab. Honela, giza garapena benetan emateko, norberaren bizitza baliotzeko beharrezkoak diren gaitasunak garatzea beharrezkoa izango da, eskubideen aukera erreala bermatzeko. Beraz, amatasuna aurrera eramateko, beharrezkoak diren baliabideak bermatu beharko dira .

### ***Adopzioa***

Ugalketarako gaitasuna ukatzearekin batera, zaintzarako gaitasunaren zalantza dela eta, intseminazio artifiziale edota adopzioa bezalako aukerak ere ezinezkoak suerta daitezke. Adopzioa lortzeko zailtasunak, Egokitasun Ziurtagiria eskuratzeko orduan agertzen dira. Bertan, aniztasun funtzionalaren inguruan ezer agertzen ez den arren, asko diskriminatuak sentitu izan dira. Izan ere, adingabearen zaintza oztopatu dezaketen osasun egoera fisiko eta psikoaren ikerketa egiten da, eta ondorioz, aniztasun funtzionala duten pertsona askok haien egoera ezkutatu edota ilegalak diren beste bide batzuk aukeratzen dituzte (Cruz Pérez, 2004; Martínez Ríos eta Leonhardt Gallego, 2009; Mogollón, 2004; Porras Navalón, 2012).

### **2.2.3. Amatasun identitatea**

Erditzea eta umea izatea ez da kanpo esperientzia fisikoa soilik, barnekoa da batez ere; honela, ama izatearen identitatea sortuz (Martínez Ríos eta Leonhardt Gallego, 2009).

### ***Bizitzan antolaketa berria***

Amatasuna gertatzen denenean, emakumeen bizitzako arlo guztietan aldaketak ematen dira. Esperientzia berri honi aurre egitea posible izateko, buruko jarrera berria agertzen da, etorkizunerako antolaketa erabat berria izango dena. Aldaketa horretan, hainbat elementuk hartuko dute parte, hala nola, sentimendu, jarrera, balio, lehentasun eta kontzeptuen birplanteaketek. Aldaketa guzti horien artean, ingurutik mesfidantza jasotzen badute, amatasun gaitasunen inguruko beldurrak areagotzeko arriskua dago. Honek auto-estimuan negatiboki eraginez, ezintasun sentimendua indartu eta amatasun funtzioak eskuordetzea eragin dezake (Martínez Ríos eta Leonhardt Gallego, 2009; Mogollón, 2004; Porras Navalón, 2012).

Mentalki hainbat eraldaketa gertatzen diren bitartean, kanpora begira ere aldaketak daude, non burutu beharreko jarduera berriei hasiera emango zaien. Jarduera hauek, aniztasun funtzional mailaren arabera zailtasun edota erraztasun handiagorekin burutuko dira, askotan umearekin harremanak izateko era alternatiboak bilatuz. Egoera berri honetan, betiere espazio pertsonala zainduz, babesa, segurtasuna eta orientazioa eskaini ahalko dion laguntza gogoan izatea lagungarria suerta daiteke. Hau, konfiantza eta segurtasuna indartzeko iturria izan daiteke (Martínez Ríos eta Leonhardt Gallego, 2009).

Hainbeste aldaketa eta jarduera berriei aurre egiteko, aniztasun funtzional fisikoa duten emakumeek, gainerako amen behar berdinak dituzte: informazioa eskuragarria, bizitzeko leku egokia, zerbitzu publikorako sarbidea izatea, hornikuntza praktiko, egoki eta lorgarriak izatea eta egoera pertsonalaren arabera beharrezko laguntzak izatea, betiere zerbitzu sozialen erantzun profesionalizatua jaso. Izan ere, kasu hauetan erakunde eta bertako profesionalek bete beharreko rola garrantzitsua da, bai etorkizuneko amarekin zein hurbileko inguru sozialarekin aurretik gaia lantzeko. Era berean, gurasoen arteko autolaguntza sarea<sup>6</sup> oso lagungarria suerta daiteke eguneroko kexa, estutasun edota arazori aurre egiteko (Martínez Ríos eta Leonhardt Gallego, 2009; Ramiro, 2003).

### ***Seme alabetan eragina***

Emakume hauen seme-alabetan aniztasun funtzionalak eragin dezakeenaren inguruan, zenbaitetan, lotsa sentimenduarekin batera, harrotasuna agertzen da, edota amari laguntza eta babesa eskaintzea ere. Bestalde, independentzia pertsonala eta arazoen konponketari

---

<sup>6</sup> Honen adibide argia, *Disability Pregnancy and Parenthood International* (DPPi) Estatu Batuetako aldizkaria da, non informazioa eta esperientziak partekatzeko sareak bultzatzen dituen. Eskuragarri: <http://www.dppi.org.uk/>

dagokionez, ume hauek garapen aurreratua dutela adierazten da, baztertze arriskuan dauden taldeen kontzientzia nagusiagoa izanik (Díaz Funchal, 2013; López, 2008; Mogollón, 2004; Porras Navalón, 2012). Hala ere, gizartean eta hainbat lan zientifiko eta literariotan, gai honen inguruko iritzi negatiboa gailentzen da (López, 2008).

Dokumentuan zehar aztertu ahal izan dugun moduan, aniztasun funtzionala duten emakumeentzat, hainbat lege ezarrita egonda ere, amatasuna oso erronka korapilatsua izan daiteke, hainbat oztopo sozial zein fisikorekin topo eginez. Emakume hauek aniztasun funtzionala duten pertsonen kolektiboaren gehiengoa izanda ere, hauen behar zein eskubideak ukatzen dira.

Hau honela izanda, helburua emakume hauen errealitatea ikertzea da, haien pertzepzioen inguruko hurbilketa eginez. Ondorengo lerroetan aniztasun funtzionala duten emakumeen amatasunaren inguruko ezaugarri zein esperientziak aztertuko dira, planteatuko diren hipotesiekin kontrastatzeko. Hipotesiak honako hauek dira:

- Gizarteak emakume hauen harreman zein amatasun bizipenetan eragin zuzena du.
- Emakume taldearen arabera (seme alabarik gabeko aniztasun funtzionala duten emakumeak; ama izandako aniztasun funtzionala duen emakumea; ama izan ostean aniztasun funtzionala izandako emakumeak), bizipen eta edukiak ezberdinak dira.

### 3. Metodologia

Ondorengo ikerketa, 2014ko otsaila eta maiatza bitartean, aniztasun funtzional fisikoa duten 7 emakumeei burututako elkarrizketa erdiestruturatueta<sup>7</sup> oinarritzen da. Honen bitartez, emakume hauen esperientzia aztertuz, amatasunaren bizipenetara hurbiltzea dut helburu nagusizat. Halaber, amatasunean eragina izan dezaketen bizitzako beste zenbait eremu ere aztertzen dira. Honela, emakume hauen bizipenen interpretaziotan funtsatuz, bizitzako arlo ezberdinak ere ikertzen dira, haien inguruko balio, sinesmen eta eraikuntza sozialen pertzepzioak kontuan izanda. Era berean, emakume hauek amatasuna ere egokian aurrera eramateko eduki ditzaketen oztopo, presio edota diskriminazioak identifikatzen dira.

---

<sup>7</sup> Eranskinetan, elkarrizketarako prestatutako galderak eskuragarri daude.

### ***Lagina***

Ikerketa hau aurrera eramateko, lagina hiru taldetan bereiztea ezinbestekoa ikusi da: ama izan ez diren aniztasun funtzional fisikoa duten 4 emakume alde batetik; ama izan eta ondoren aniztasun funtzional fisikoa izan duten 2 emakume bestetik; eta azkenik, ama izandako aniztasun funtzional fisikoa duen emakume bat. Izan ere, hiru kasu hauetako pertzepzioak oso ezberdinak izan daitezkeela ulertzen da.

Lagina, 30 eta 61 urte bitarteko aniztasun funtzionala duten emakumez osatuta dago. Lehenengo taldean adinaren batez bestekoa 34 , bigarrenean 60 eta azkenekoan, 59 urtekoa da. Guztiak Euskal Autonomi Erkidegoan jaiok dira. Esan bezala, hauetatik 3 amak dira, eta hiruk bikotea dute (ama ez den bat, eta ezgaitasuna ama izan ostean izan dutenak).

Datu hauen aberasgarritasuna, alde batetik interesgarria eta erakargarria suerta daiteke, bizitzako egoera ezberdinak alderatzeko aukera ematen baitu. Baina bestalde, analisi zein datuei heltzeko zailtasun gehigarria suposatzen du.

Laginean parte hartu duten emakumeek, aurretik nire zereginaren inguruan informatuak izan dira, Gizarte Hezkuntza Gradu ikaslea naizela, eta ezgaitasuna duten emakumeen amatasunaren inguruko azterketa bat burutuko dudala, kolektibo honen errealitatea ezagutzeko, ondoren Gradu Amaierako Lanean plasmatzeko. Honela, pribatuan burututako elkarrizketetan parte hartzeko gonbidatuak izan dira, non identitatearen konfidentzialtasun osoa gorde den. Gehienak ikerketaren aurrean jarrera positiboa izan eta gai honen inguruko interesa izatea eskertu dute, berehalako prestutasuna erakutsiz.

Lagina, estatistikoki adierazgarria ez dela aipatu beharra dago, baina gaiaren inguruan ezarritako ezagutzen hausnarketa eta horrekin batera, eraldaketa soziala bultzatzeko baliogarria suerta daiteke.

### ***Elkarrizketa erdi-egituratua***

Ikerketa honetan non ardatza aniztasun funtzionala duten emakumeen bizitza esperientzia den, elkarrizketek alde biografiko narratibo garrantzitsua dute. Izan ere, ikerketa honetan, protagonistak aniztasun funtzional fisikoa duten zenbait emakumeren testigantzak dira, errealitate pertsonalak jasoz, eta beraz, errealitate sozialak. Honela, ikerketa honetan metodologia kualitatiboa izatea ezinbestekoa ikusi da parte hartutako emakumeen iritzi, balio eta hausnarketaz beteriko bizipenen errealitatea ezagutu ahal izateko. Honela, ahalik

eta datu gehien ateratzeko helburuarekin, elkarrizketa erdi-egituratuak burutu dira, non bizitza arloko zenbait aspektuen inguruko galdera irekiak egon diren.

Aurrera eramandako elkarrizketek, ordu bat eta 90 minutu arteko iraupena izan dute, bakoitza elkarretaratze bakarrean burututa. Hauek aurrera eramateko toki egokia lortzea beharrezkoa izan da giro lasaia izateko, honela, elkarrizketatuak ere lekua aukeratuz, bat izan ezik gainerakoak FEKOOR (Ezgaitasun Fisikoa edota Organikoa dute Pertsonen Erakunde Koordinatzailea) eguneko zentroan burutu dira. Bestea, Deustuko kafetegi batean. Esan, elkarrizketak parte hartutako emakumeen onarpenarekin grabatuak izan direla.

Zenbait emakumeen azalpenak laburrak izan dira, bizitza esperientzia adierazteko ohitura falta azaltzen duena. Beste emakumeek, aldiz, haien bizitza esperientzia eta sentipenen azalpen aberatsa eman dute.

### ***Analisi prozedura***

Analisia, gaien edukiaren arabera era konbentzionalean (Hsieh eta Shannon, 2005) burutu da, kontaktetan agertutako gairik aipagarrienak identifikatzeko helburuarekin. Honela, kasuak gaien arabera ordenatu eta aipuak gehitu dira.

## **4. Emaitzak**

Ikerketa aurrera eramateko hartutako estruktura kontuan izanda, ondorengo lerroetan, elkarrizketetan lortutako informazioaren analisiaren emaitzak aurkezten dira, amatasuna bizitzeko hiru moduen arabera berezita: hasteko, seme-alabarik gabeko emakumeak; ondoren, ama izandako aniztasun funtzionala duen emakumea; eta azkenik, seme-alabak izan ostean aniztasun funtzionala izandako emakumeak.

### **4.1. Seme alabarik gabeko aniztasun funtzionala duten emakumeak**

Elkarrizketetan ateratako informazioa aztertu ondoren, atal desberdinak bereizi dira: harremanak; amatasuna: familia, antolakuntza eta laguntza, arlo praktikoa eta arlo emozionala; seme-alabetan eragina; adopzioa; aldarrikapenak; fantasia; eta ikuspuntuaren araberako errealitatea.

***Harremanak***

Parte hartzaileek, gizartean aniztasun funtzionalaren ikuspegi sozial negatiboa gailentzen dela adierazten dute, non estereotipoak eta aurreiritziak nagusi diren. Honela, emakume hauek hainbat alditan haien burua gutxietsia sentitu dute, behe-mailako izakitzat hartuz.

Era berean, gizartearen ezjakintasunaren ondorioz, haurtzarotik bazterketa soziala nabaria dela azpimarratzen dute, horrek, egun ere harremanak izateko zailtasunak eraginez.

*Si tu un día me invitas a comer, yo estaría muy nerviosa de cómo cojo la comida, cómo voy a beber, etc. Eso me crea muchos traumas, me hacen pensar unas tonterías tan grandes que me impide acercarme a ti o a quien sea, por lo que pueda pasar.*

Harreman pertsonalei dagokionez, aniztasun funtzionala duten beste pertsonekin harreman pertsonalak izateko zailtasun handirik ez dutela diote; hala ere, parte hartzaileetatik batek baino ez du bikoterik izan, hauek aniztasun funtzionala ere izanik.

Aipatzeko da ere, emakume hauen lehentasunen artean, bikotea aurkitzea ez dela agertzen. Izan ere, independentzia pertsonalera heltzeko pausuak eman nahi dituzte. Horretarako, lanpostu baten bitartez independentzia ekonomikoa bilatzen dute nukleo familiarretik irten ahal izateko. Hala ere, parte hartzaileen artean badaude etorkizunean bikote eta familia eraketa ukatzen ez dutenak.

*Cuando hablan de independencia, bueno independiente, se dan como pequeños pasitos. Cuando dicen independencia, pienso “buf,” todavía lo que queda.*

Harreman sozial zein pertsonaletan, itxura fisikoa elementu erabakigarria da. Emakume hauen kanpoko itxura gizarteko kanon estetikoaren barne sartzen ez direnez, asexualak diren pertsonatzat hartzen dira, erakargarritasun ezakoak eta beraz, bikote hautagai posible moduan ukatuz. Honela, harremanetarako oztopoak bikoizten dira.

*La gente, la primera impresión que se lleva, es lo que ve, eso ya te condiciona. Porque claro, no es lo mismo lo que ve la gente de ti, que de mí, que lo primero que ve es la silla y que hago movimientos extraños. Entonces el concepto parece que ya es distinto, o por lo menos eso ha dado a entender muchas veces.*

Era berean, haien buruaren ikuspegi negatiboa dute, hau oztopo sozial zein pertsonal handia bilakatuz.



*Ni se me pasa por la cabeza, sería tanto trabajo para la otra persona, que no podría hacer eso a otro persona por mucho que la quiera. No es que no me interese, es que se que en mi vida hay ciertas cosas que no voy a vivir y lo tengo asumido, lo veo normal.*

Halaber, aniztasun funtzionala dela eta, baldintzatzaile gehiago dituztela adierazten dute, elementu gehiago kontuan hartu behar baitituzte oso diru kopuru murriztarekin. Era berean, ordaindu beharreko gastu gehigarriekin bikote bizitza aurrera eramatea oso zaila izan daiteke.

### ***Amatasuna***

Aurretik esan bezala, ikerketaren parte hartzaileek familiaren eraketa ez dute ez bizitzako oinarrizko helmugatzat ezta etorkizuneko proiektu lehentasuntzat hartzen. Honek ez du esan nahi aniztasun funtzionala ama izateko gaindiezineko eragozpena denik, eta beraz, alde batera utzi beharreko ideia denik. Baizik eta talde honen ekarpen nabarmenenei egiten diela erreferentzia.

- ***Familia***

Emakume hauen esanetan, amatasunaren inguruan erabakitzerako orduan familiaren iritziak eragina duen arren, azken hitza norbanakoarena da. Parte hartzaileen artean familiarekin gai honen inguruan hitz egin dutenak, familiaren kontrako iritzia azpimarratzen dute. Azkenean, kostata onartu eta lagunduko zuten arren. Familiaren partetik, ama izateko beldurra da eragile nagusia: sortu daitezken konplikazioengatik edota seme-alaba zaintzeko gaitasun zalantzagatik.

- ***Antolakuntza eta laguntza***

Ikerketan parte hartutako emakume guztien iritziak, amatasunaren aurretiko antolakuntza ezinbestekoa da. Bertan, emakume talde hauek adierazi izan dutenez, laguntza beharrezkoa da, bai asistentziazkoa eta baita, ekonomikoa ere.

Asistentziari begira, gehienak familia aipatu dute. Hala ere, umea zaintzeko laguntza jarraikikoa izango dela kontuan hartuz, familiaz gain, laguntza zerbitzuak kontratatzea beharrezkoa dela diote. Baina, laguntza hau ordainpekoa dela kontuan izanik, laguntza ekonomikoa beharra ere adierazi dute, pentsioen kopuru baxua dela eta. Hortaz, kasu honetan ere aniztasun funtzionala izateagatik gastu estrak agertzen dira.

*La ayuda familiar no sería solo en ocasiones puntuales, en personas con discapacidad sería de continuo. No sé el tipo de asistencia que hay, pero supone un dinero también la asistencia.*

- ***Arlo praktikoa***

Ikerketan parte hartu duten emakumeek ez dute amatasunaren esperientzia bizi, praktikaren inguruko zailtasun posibleei buruz aritzeko. Hala ere, emakume hauen iritzien arabera, hainbat kezka gehigarri planteatzen dira.

Hasteko, osasun arloko irisgarritasun eza; hau, oztopo garrantzitsua izan daiteke haurdunaldiaren jarraipena burutzeko. Hala ere, leku espezializaturen bat egotekotan, gastu estra suposatzeaz gain, ez dute horren inguruko berririk.

*Está muy mal, no sé si habrá algún sitio especializado, así de rutina no encuentras nada. Como decíamos el otro día, como no es excepcional, pues no voy a gastar dinero en eso. (...) Para ir a un ginecólogo, es casi completamente imposible. Ahora, directamente yo voy a un ginecólogo, y si le dices que eres virgen no te vuelve a mirar nada.*

Era berean, aniztasun funtzional mota eta mailaren arabera, umearekin aritzeko zailtasunak ere antzematen dituzte.

- ***Arlo emozionala***

Sentimendu ezberdinak agertzen dira amatasunaren inguruan aritzerakoan. Alde batetik, beldurra nabarmentzen dute. Haien hitzetan, ezjakintasun orokortua dela eta, beldur hori sustatzen duten sinesmen eta aurreiritziak hainbat dira, umea zaintzeko gaitasunik ez dutelakoan.

Aipatzekoa da ere, amatasuna oso eragin positiboa izan dezakeela adierazten duten arren, amatasuna biziko ez dutela barneratua dutela, dauden kasuen berririk edota informaziorik izan gabe.

*Hay ciertas cosas en mi vida que yo sé que no las voy a vivir. Me encantan los bebés, los niños, a veces pienso en ello pero luego vuelvo a la realidad y yo también quiero; pero lo que quiero es esa vida, no quiero solo niños, quiero toda la vida, el casarme, el trabajar, el vivir sola con tu pareja.*

### ***Seme-alabetan eragina***

Seme-alabetan, amak aniztasun funtzionala izateak eragina izan dezakeela azaldu dute. Alde batetik, ezgaitasunaren esperientzia gertutik bizitzean, gutxietsiak egon daitezkeen kolektiboekiko kontzientzia handiagoa izan dezaketela eta beraz, bizitza antzemateko era zabalgoa dutela.

*Un chico entró como usuario y la mujer y él tuvieron hijos vía “in vitro” y tuvieron dos gemelas. Luego ya las conocimos, y conocían ya el tema de las sillas, como el padre también estaba en estos berenjenales ya conocían este tema y estaban como Pedro por su casa.*

Era berean, aniztasun funtzionalaren gaia normalagotzat hartzeaz gain, urteak aurrera joan ahala gainerako adin bereko umeek baino ardua edo jarduera gehiago bakarrik burutuko dutelakoan, arduratsugoak eta autonomoagoak izateko aukera dutela adierazten dute. Bestalde, gainerako umeek jasotako estereotipoak direla eta, mingarriak izan daitezkeen komentarioak egiteko arriskua dagoela diote, umeentzat traumatikoak izan daitezkeenak. Halaber, emakume hauek ikusten duten beste arrisku bat, seme-alabekin ekintza gutxiagotan edo beste era batean parte hartu behar izatea da. Horregatik, emakume hauen ustean, ezinbestekoa izango da seme-alabekin ezgaitasunaren gaia sakonki lantzea, egoera zein den ulertzeko.

### ***Adopzioa***

Ikerketan parte hartutako emakumeen artean, adopzioa landuta ez duten gaia da. Hala ere, kasu honetan baliozkotze prozesua askoz sakonagoa izan behar dela ulertzen dute, haien esanetan, oso erabaki garrantzitsua baita.

### ***Fantasia***

